

II SAN SILVESTRE DONOSTIARRA

txikia

ARAUDIA

San Silvestre Donostiarraren jarduera osagarri gisa, eta hura baino egun bat lehenago (igandea 30ean), haur lasterketa bat antolatuko da. Bertan, 15 urte arteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, honako kategoria hauetan:

- ❖ TXIKIAK, 6 - 7 urte. Ibilbidea: 200 m
- ❖ BENJAMINAK, 8 - 9 urte. Ibilbidea: 300 m
- ❖ ALEBINAK, 10 - 11 urte. Ibilbidea: 677 m
- ❖ INFANTILAK, 12 - 13 urte. Ibilbidea: 1.275 m
- ❖ KADETEAK, 14 - 15 urte. Ibilbidea: 1.275 m

- Lasterketa asfalto gainean jokatu da, Autonomia kalean zehar antolatuko den ibilbidean. Irteera eta helmuga Easo plazan izango dira.
- Kategoria bakoitzaren irteera 11:00etatik aurrera egingo da; beraz, lasterkari guztiak ordu-laurden lehenago bertan egotea eskatzen dizuegu.
- **Izen-ematea gure web gunearen bidez egitea posible da, sansilvestredonostiarra.com, eta dortsalak geratzen badira, abenduaren 29an egingo da, Amara kaleko frontoian, 11:00 - 20:00 ordutegian.**
- **Parte hartzeak 2 euroko kostua izango du, eta bildutako dirua irabazi-asmorik gabeko NUPA elkarteari emango zaio osorik.**
- **400 dortsal emango dira guztira.**
- **Dortsala jasotzeko 2 aukera izango dira: abenduaren 29ean, 11:00 – 20:00, Amarako Frontoian edo abenduaren 30ean 10:00 tatik aurrera Easo plazan.**
- Parte-hartzaile guztiei kamiseta bat oparituko zaie dortsala jasotzen duten unean, eta kamiseta hori jantzita parte hartu beharko dute lasterketan.
- Ez da saririk izango lehen sailkatuentzat; lasterketaren helburua haurrek parte hartzea da, ez lehia sustatzea.
- Proba amaitutakoan, txokolatada bat eskainiko zaie parte-hartzaileei.
- Antolakuntzak ez du bere gain hartzen arau hauek ez betetzeak sor litzakeen kalteen erantzukizunik ez eta lasterkarien axolagabekeriak edo arduragabetasunak eragindakorik; hala ere, probak berezkoak izan ditzakeen ezbeharrak estaltzeko Istripuetako eta Erantzukizun Zibileko Asegurua du.
- Izena ematean baimena ematen zaie antolatzaileei lasterketaren edozein argazki, filmazio, grabaketa edo bestelako edozein irudi erabiltzeko, trukean ordain ekonomikoaren ezein eskubide izan gabe.

AMARA KIROL ELKARTEA